

PRENTSARAKO OHARRA

18/05/28

Bizkaiko Batzar Nagusiek urtero Deiadar Mendietarako Igoerea antolatzeko konpromisoa berretsi dabe

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak bilerea izan dau gaur goizean urtero Deiadar Mendien Egunaren antolaketa parte hartzen daben bost mendi taldeen ordezkariakaz. Topaketa horretan, erakundeak Deiadar Mendien urteroko igoerea antolatzen jarraitzeko daukan konpromisoa berretsi dau Presidenteak, mendi talde horreen laguntzagaz, bagileko lehenengo domekan. Tradizinoa 2004an hasi zan, erakundea berriz beharrean hasi osteko 25. urteurrena zala eta. Aurton, kirol eta kultura jardunaldia Oiz mendian egingo da.

Bileran honeek hartu dabe parte: Alpino Tabira taldeko (Durango) Iñaki Calvo eta Julen Fernández; Balmaseda taldeko Jagoba Güemes; Gailurra taldeko (Bilbo) Alberto Díez; Ganzabal taldeko (Lemoa) Javier Burguete; eta Sollube taldeko (Bermeo) Xabier Goikoetxea. Presidenteak, datorren domekan mendira igoten daben guztiei emongo jaken opari ekologikoaren laginak emon deutsez. Horri esker, ez dira erabili ostean botaten diran edalontziak erabiliko Oiz tontorrean egingo dan hamaiketakoan.

XV. edizino honetan Durangoko Alpino mendi taldea izango da Bizkaiko tontor enblematikoenetako batera egingo dan igoeraren arduraduna, aurreko urteetan, beste lau deiadar tontorretara (Gorbeia, Ganekogorta, Kolutza eta Sollube) egin diran igoeren ostean. Domekan, ohikoa danez, Alpino Tabira taldeak Bilboko Gailurra taldeko ordezkariari emongo deutso lekukoa, datorren urteko bagileko lehenengo domekan Ganekogortarako igoerea antolatu daian, deiadar mendietarako igoeren zikloari jarraipena emoteko.

Ibilaldia goizeko 09:00etan hasiko da Gerediagako Batzarretxetik oso gertu dagon Bizkaiko Garai herri txikian. Partaideak Oizeko tontorrera (1.026 metro) igongo dabe, aurreko edizinoetan erabilitakoa izango ez dan bidetik, eguerdiko 12:00etan adarrak jotzeko tradizinoa leialtasun osoz beteteko. Abiapuntua 228 metroko altueran dago.

Ibilpidea: <https://es.wikiloc.com/rutas-senderismo/garai-oiz-circular-monte-bocinero-2018-24710986>

Tontorrera heldu eta adarrak jo ostean, bertaratuek, antolatzaileek prestatutako jai-gune txiki batez gozau ahal izango dabe. Bertan ez dira faltako musikea, dantzak eta jateko apur bat, indarrak berreskuratu ahal izateko.

IDEA ERROMANTIKOA

Deiadar Mendien Egunaren ospakizuna, iraganean Batzar Nagusietarako deiak egiten ziran moduaren irudikapen erromantikoa da. Bost deiadar mendiei buruzko lehenengo erreferentzia bibliografikoa XIX. mendekoa da, Pascual Madoz iruñearraren jatorrizko idea, hain zuzen be. Aitamena Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar izeneko lanean (gehienek Madozen Hiztegia izenez ezagutzen dabenean) agertu zan.

Geroago, Antonio de Truebak (Galdames), 1862an Bizkaiko Batzar Nagusiek “Bizkaiko Jaurreriko kronista eta artxibo-zaina” izendatutakoak, “Bizkaiko historia orokor xumea” idazteko informazioa batu eban, eta bertan, bost deiadar mendien kondaira erromantiko hori garatu eban.

Hori bai, deiadar egilearen pertsonaiaren ganeko erreferentziak antxinagokoak dira. Historialari batzuek esaten dabenez, Lurraldeko lehenengo behargin publikoak izango ziran, seguruenez. Bizkaian ezagutzen dan lehenengo antolamendu juridikoan, Foru Zaharraren aurrekaria izan zan Juan Núñez de Lararen koadernua izenekoan, hau esaten da, berbaz berba: “*Hera de mill e trezientos e ochenta annos (1342), estando don Juan Nuñez e donna María, nuestros sennores, en la Junta de Garnica, seyendo juntados cavalleros e escuderos ... llamados a Junta General e tannidas las cinco vozinas...*”

Lope García de Salazarrek, “Bienandanzas e fortunas escrito a finales del siglo XV” liburuan be bost deiadar egiten zirala esaten dau: “E juntados todos los vizcaínos, *“tañiendo las çinco vozinas en las çinco merindades, segund su costunbre”*. Kondaira edo errealidadea bada be, egia esan, gaur egun Deiadar Mendien Eguna, kirola, natura eta historia apur bat nahasten dituan oso ohitura bizia da. Adarraren antxinako soinuagaz daukagu hitzordua, bagilaren lehenengo domekan, Oiz mendiaren tontorrean.

NOTA DE PRENSA

28/05/18

Las Juntas Generales de Bizkaia y los clubes de montaña reafirman su compromiso de organizar anualmente la Subida a los Montes bocineros

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha mantenido una reunión esta mañana con representantes de los cinco clubs de montañas que participan anualmente en la celebración del Día de los Montes Bocineros. Durante este encuentro, la Presidenta ha reiterado el compromiso de la institución de seguir organizando con su ayuda la subida anual a los Montes Bocineros el primer domingo de junio, una tradición iniciada en el año 2004 con motivo del 25 aniversario del restablecimiento de esta institución. Este año esta jornada deportiva y cultural se celebrará en el monte Oiz.

A esta reunión han asistido Iñaki Calvo y Julen Fernández, por parte del Club Alpino Tabira (Durango); Jagoba Güemes, del Club Balmaseda; Alberto Díez, del Club Gailurra (Bilbao); Javier Burguete, del Club Ganzabal (Lemoa); y Xabier Goikoetxea, del Club Sollube (Bermeo). La Presidenta les ha entregado muestras del obsequio ecológico que recibirán el próximo domingo todas las personas que suban el monte y que impedirá el uso de vasos de plástico desechables en el avituallamiento en la cima del Oiz.

En esta XV. Edición el club de montaña Alpino Tabira de Durango será el encargado de la ascensión deportiva a una de las cimas más emblemáticas de Bizkaia después de sucesivas ascensiones, años atrás, a las otras cuatro cumbres bocineras (Gorbeia, Ganekogorta, Kolutza y Sollube). El domingo, como viene siendo tradición, el club Alpino Tabira cederá el testigo al representante del club Gailurra de Bilbao para que organicen el primer domingo de junio del año próximo la subida al Ganekogorta, continuando así con el ciclo de ascensiones a los montes bocineros.

La marcha partirá a las 9 de la mañana desde la pequeña localidad vizcaína de Garai, muy próxima a la Casa de Juntas de Gerediaga. Los participantes ascenderán a la cima del Oiz (1.026 metros) por otra vía diferente al de ediciones anteriores, para cumplir fielmente con la tradición de tañir los cuernos a las 12 del mediodía. Se parte de 228 metros de altitud.

Ruta <https://es.wikiloc.com/rutas-senderismo/garai-oiz-circular-monte-bocinero-2018-24710986>

Una vez se alcance la cima y hagan sonar los cuernos, los allí presentes podrán disfrutar de un pequeño espacio festivo preparado por los organizadores en el que podrán reponer fuerzas con un aperitivo y donde no faltará la música y las danzas vascas.

IDEA ROMÁNTICA

La celebración del Día de los Montes Bocineros es una representación romántica de cómo se hacían en el pasado las convocatorias a Juntas Generales. La primera referencia bibliográfica a los cinco montes bocineros llega en el siglo XIX con la idea primogenia del pamplonés Pascual Madoz escrita en el Diccionario geográfico-estadístico-histórico

de España y sus posesiones de Ultramar (conocido popularmente por Diccionario de Madoz).

Posteriormente, Antonio de Trueba (Galdames), proclamado en 1862 por las Juntas Generales de Vizcaya “Cronista y Archivero del Señorío de Vizcaya”, recopila información para escribir “una modesta historia general de Vizcaya” en donde desarrolla esta leyenda romántica de los cinco montes bocineros.

Eso sí, las referencias sobre el personaje del bocinero son más antiguas. Algunos historiadores dicen que bien pudieran ser los primeros empleados públicos del Territorio. En el primer ordenamiento jurídico que se conoce de Bizkaia, el denominado cuaderno de Juan Núñez de Lara que sería un precedente del Fuero Viejo se dice: “Hera de mill e trezientos e ochenta annos (1342), estando don Juan Nuñez e donna María, nuestos sennores, en la Junta de Garnica, seyendo juntados cavalleros e escuderos ... llamados a Junta General e tannidas las cinco vozinas...”

Lope García de Salazar en su libro *Bienandanzas e fortunas* escrito a finales del siglo XV también habla de que se tañeron las cinco bocinas. “E juntados todos los vizcaínos, “tañiendo las çinco vozinas en las çinco merindades, segund su costunbre”. Ya sea parte de leyenda o parte de realidad, el hecho es que el Día de los Montes Bocineros es hoy una costumbre muy viva que combina deporte, naturaleza y algo de historia. La cita con el sonido ancestral del cuerno, el primer domingo de junio en la cima del Oiz.